

“TURISMOAK HERRIA GARESTITZEA EKARRIKO DU”

Zumaia 2050ean nolakoa izango den jakiteko herritar batzuei elkarrizketak egin dizkiegu, eta honako hau Marijo Zelaiari eginikoa da.

Zumaian atzerritarrak etortzeak zer eragin izango du?

Nire ustez Zumaian atzerritarrak etortzeak egingo duena da herria asko garestitzea. Prezioak asko igoko dira, Batzuentzat lana ere sortuko da, baina herria asko garestituko da.

Gazte guztientzako egongo al da Zumaian lan egiteko aukera?

Turismoa asko igotzen bada, turismoaren inguruan lana sortuko da, baina ez dut uste denontzako egongo denik.

Zenbat pertsona bizi izango da turismotik?

Ez dakit esaten zehazki zenbat, baina gehiengoak ez dut uste aukera izango duenik turismotik bizitzeko.

Zure ustez, etxeen prezioa igo edo jaitsi egingo da?

Gora eta gora doa etxeen prezioa, eta nire ustez gehiago igoko da.

Zerbitzu publiko gehiago egongo al dira?

Turismoa igotzen bada, zerbitzu publikoak gehituko dira

Zumaian ba al dago gauezko garraiorik?

Bai, orain badude astebukaeretan, eta turismoa igotzen bada, maiztasunak gehituko dira.

Etxebizitza berriak sortuko dira edo lenoko zaharrak mantendu?

Berri batzuk egingo dira, Zumaian etxe falta dago, eta prezioak asko garestituko dira Udalak neurririk hartzen ez badu.

[Manu Laskibar Zelaia](#)